

B

BARREN

TOKIKOM



Behobia-Donostia zangoetan

Pilar Arriola



PLATERUENA

Zilarberritzen,
Durangon kultura bizitzeko.

...eta urte
ASKOTARAKO!

Katamalo Plateruena Kafe Antzokian
emandako agur kontzertua zuzenean!



Plateruenean alde **Katamalo** egindako lana.
8€an eskuragai gurean.



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higijena eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
BERRIAI
- Tapoiak neurria
(uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA
ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745

177\12

fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-
koa:
+ Traumatologia.
+ Estetika (zelulitisa, es-
triak)

Osasunerako ariketa agin-
dua
(Diabetes, osteoporosis,
hipertensio arteriala)

Entrenamendu gidatua

Pilates makinak
(errehabilitazioa)
3 pertsona gehien.

Txirindulariaren biomekani-
ka (kalak, ergonomia bizikle-
tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.
Tel.: 943 740 191
667 953 628

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Amaiz
ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ARGITARATZAILEA:



LAGUNTAILEAK:



elgoibar
biZi-biZiKal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Handia egin dugu

Zapatuan beste pauso bat eman genuen aurrera. Beste pauso bat, erabakitzeke esku-bidea egikaritzeko bidean. Eskoziarrak zoriondu, galdeketa atarian katalanei gure babesa agertu eta Euskal Herriak ere bere etorkizunaren gainean erabakitzeke eskubidea duela aldarrikatu genuen, mosaiko erraldoi eta koloretan baten bidez. 10.000 lagun inguruk parte hartu genuen, eta ikusgarriak izan ziren sortu genituen irudiak. Elgoibartar eta mendarotar talde handi batek ere parte hartu genuen mosaiko hura osatzen, eta horregatik, lerro hauen bidez, gure eskerrik beroena adierazi nahi dizuegu zuei guztioi. Mila esker, lagunok! Zapatukoak lanean jarraitzeke indarra eman digu, eta ziur gaude denon artean lortuko dugula herri honek bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea egikaritzea.

Nekez ahaztuko dugu joan den asteburu hau. Domekan, oraindik mosaikoaren irudiei begira geundela, irakaspen handia eman ziguten gure lagun katalanek. Erakusi ziguten bat eginda helbururik zailenak ere lor daitezkeela, horretarako borondatea, sinesmena eta ke-mena izanez gero, eta horregatik, gure zorionik beroena eman nahiko genieke haiei ere. Bateko eta besteko borondateak elkar lotzen asmatu dute, eta oztopoak oztopo, erakutsi dute ez dagoela gairik ezinezko hormarik. Jarrai dezagun, beraz, elkarrekin bidea egiten, etorkizuna Gure Esku Dago eta!

**Elgoibarko eta Mendaroko
Gure Esku Dago batzordeak**

Elgoibarko Parrokiko oharra

Elgoibarko San Bartolome parrokia on-dorengoa azaldu nahi dizue: Gabonetarako saltzen ari garen loteriaren tako bat desagertu denez, 2101 zenbakitik 2200era doazen txartelak balio gabetu egin ditugu. Beraz, Parrokiak saltzen diharduen zenbakia saritua izango balitz, aipatutako txartel horiek ez lukete saririk izango.

Elgoibarko Parrokia

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Herriko merkataritzari bultzada emateko Friday Market egitasmoa antolatu du Txankakua Merkatarikari Elkarteak

18:00etatik 22:00etara izango da gaur, Kalegoen plazan

Friday Market antolatu du Txankakua gaur iluntzerako. 18:00etatik 22:00etara bitartean elkarteko 23 merkatarikari Kalegoen plazan izango dira, euren azken berrikuntzak erakusteko. Besteak beste, kirol produktuak, kosmetikoak, elikagaiak, jantziak eta beste-lakoak ikusi, probatu eta erosteko aukera egongo da. Besteak beste, makilaje eta manikura saioak egingo dituzte zuzenean, aholkuak emango dituzte eta norberaren azalaren arabera egokien datorkigun makilajea zein den ikasteko aukera ere egongo da. Era berean, momentuan eginiko pizza italiarrak dastatu ahal izango dira. Txosna ere jarriko dute, eta ez da jan-edanik faltako. Argiz eta musikaz giroa dute jaia, eta Niala magoaren emanaldia ere izango da. Antolatzaileek esan dutenez, horrenbeste merkatarikari batzen diren estreinako aldia izango da. Merkataritzak herriari bizitza ematen diola sinistuta antolatu dute egitasmoa, eta herritarrei dei egin diete Kalegoen plazara hurbil daitezen.



‘Alboka’ laneratze proiektua aurkeztu dute gaur IMHn

IMHk eta Kalexa elkartek garatu dute *Alboka* laneratze proiektua, Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailarekin eta La Caixa Gizarte Ekintzak finantzatuta. Kualifikazio baxua eta hezkuntza arautua jarraitzeko zailtasunak dituzten gazteei zuzendutako proiektua da. Horri esker, 18-30 urte bitarteko 15 gaztek zeharkako gaitasunak eta gaitasun teknikoak lantzeko prozesua garatuko dute, hezkuntza arauturik ez dagoen Debabarreneko sektore eta lanbideetan integratu ahal izateko. Proiektua lehen fasean dago, eta gazteak prestatzen ari dira urtarrian egingo diren saio teknikoetarako. Azkoiti, Eibar, Mendaro, Mutriku eta Soralezeko udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ermuko Gurutze Gorriak ere laguntzen dute egitasmoan.

Sare egunera deitu dute Mendaron hilaren 22rako



Konponbidearen parte izateko deia egin zieten herritarrei joan zen barixakuan Mendaron Sare herri-sarea mugimendura batu zirenek. Era berean, azaroaren 22an ospatuko duten Sare egunerako deia ere egin zieten. Alkorta Igoera mendiko lasterketaren bueltan, ekitaldi ugari antolatu dituzte egun horretarako, besteak beste baba-jan herrikoa ere bai, frontoian. Bazkaritarako txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko, Aitzbeltz tabernan. Bazkal aurretik herri-kirol erakustaldia izango da plazan, eta bazkalosteko kafe-tertuliaren ondoren, Moxilla Band-ekoekin kalejira. Guean, berriz, 23:00etatik aurrera kontzertuak izango dira Gaztetxean.

Mosaikoa Erabakitzeko eskubidearen alde



Eskoziarrak zoriontzeko, Kataluniarrei galdeketa atarian animoak helarazteko eta Euskal Herrian erabakitzeko eskubidearen aldeko beste pauso bat emateko, mosaiko handi eta koloretsua osatu zuten joan zen zapatuan Donostian 10.000 lagun inguruk, Gure Esku Dago herri mugimenduak deituta. Bazter guztietako jendeak parte hartu zuen mosaikoa osatzen, eta Elgoibartik eta Mendarotik ere dozenaka lagun joan ziren. Pontxo eta aterkiak hartuta, irudi ikusgarriak osatu zituzten, tartean eskoziako eta kataluniako banderak eta hautestontzi bat. Argazki gehiago: www.elgoibarren.net helbidean.



Asteko irudia Istripua



Ezbehar larria gertatu zen joan zen barixakuan Elgoibarren, Andikanotik Maltzagarako tartean. Bi autok istripua izan zuten A8 autobidean Bilbora norazkoan, eta autoetako bat autobidetik hamar bat metro behera amildu zen, bidegorriraino. Amildutako autoak ozta-ozta gairiditu zuen tunelaren irteera eta gutxigatik ez zen ibaira jausi. Argindar etxea dagoen pare horretan gelditu zen autoa, bidegorria eta trenbidea banatzen dituen hesian kateatuta. Auto barruan zihoazen bi lagunek zauri arinak baino ez zituzten izan. Argazki gehiago: www.elgoibarren.net helbidean.

Milagrosaren egutegia salgai San Lazaro egoitzan

Milagrosaren egutegia salgai. Goizez, 10:00etatik 12.15etara eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara.

Zaharren egoitzetan egonaldiak

Zabaldute dagoeneko zaharren egoitzetan egonaldiak egiteko programarako eskabideak aurkezteko epea. Abenduaren lehen hamabostaldian gauzatu nahi diren ingresoetarako eskaerak eta abenduko hila bete osorako eskaerak aurkezteko epea azaroaren 16an bukatuko da. Abenduaren bigarren hamabostalditik aurrera gauzatu nahi diren ingresoetarako, berriz, azaroaren 26ra arte egin ahal izango dira. Elgoibarko Udalak jakinarazi du epea kanpo jasotzen dituzten eskabideei libre dauden plazen arabera erantzungo dietela. Informazio gehiago Ongizate Sailean.

Ekintzailatza sustatzeko hitzaldi tailerra

Deskubritu zure pasioa. Nola lortu benetan nahi duzun bizitza izenburupean hitzaldi-tailerra antolatu dute gaur arratsalderako Debegeesak eta Elgoibarko Udalak. Iker Fernandez coach profesionalak eskainiko du motibazio saioa, musika eskolan, 18:00etan hasita. Nork bere talentua deskubritu eta sustatzeko argibideak emango ditu Fernandezek. Hitzaldi-tailerra doakoa da, baina interesatuek aurrez izena eman behar dute, 943 820 110 telefonora deituta edo ekintzaile@debege-sa.com helbidera idatzita.

Ordu berean, 18:00etatik 19:30era, 4 eta 11 urte bitarteko haurrentzat tailerrak egingo dituzte Lekueder parkean, Manahmana enpresa eta Atxutxiamaika aisialdi taldeak. Etorkizuneko ametsetako bizimoduak edota ogibideak irudikatzen dituzten helburuarekin, marrazki eta eskulan tailerrak eta trukean oinarritutako merkatu txikiak antolatu dituzte Ametsen jaia egitasmoaren barruan. Interesatuek telefonoz edo e-posta bidez 943 820 110 / ekintzaile@debege-sa.com eman dezakete izena.

ASIER LIZARRALDE

ASMAOLA+ LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Asmaola+ enpresa industrialen ideia lehiaketa irabazi berri du Asier Lizarralde (Elgoibar, 1990), zuhaitzak inauteko makina automatiko batekin. Lehiaketa hori Lanbide Heziketako ikastetxeen sareak antolatzen du Elgoibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta hainbat enpresen babes eta laguntzarekin, eta, besteak beste, gazteen artean izaera industrialak duten enpresa proiektuen garapena sustatzea du helburu.

“Lanean bakarrik moldatuko bazara, behartuta zaude irudimena erabiltzera eta hor dago sortzeko gakoa”

Nola hartu duzu saria?

Pozik, oso pozik. Ez dakit bideoa ikusi duzun, baina sari banaketan oso urduri jarri nintzen. Blokeatuta gelditu nintzen. Egia esan, ez zegoen pentsatuta nik hitz egitea, baina Pedro [Garcia Larrañan], aurkezlea, etorri zitzaidan ia proiektua neuk azaldu nahi nuen galdezka, eta nik baietz. Eta han gelditu nintzen, hitzik egin ezinda. Azkenean, lortu nuen gutxi gorabehera azaltzea. Baina, bai, sariek beti egiten dute ilusioa, eta beti dira lagungarri. Curriculumerako ere ondo etorriko da, nik uste. Gainera, lehenengo urtea da lehiaketa hau antolatu dutela eta lehenengo edizioa irabaztea, ma-



kina-erremintaren mendeurrenean gaudela jakinda gainera, beti da bereziagoa.

Mendeurrenaren harira museora egin dugun bisitetan han ikusi izan zaitugu. Han ibili izanak lagundu dizu Asmaolan aurkeztu duzun proiekturako?

Museoa diseinatzen jardun nuen Pedro Ortuondoren ondoan, eta hortik, tarteka, IMHra joaten nintzen, eskolara, beste lan batzuk egitera. Igor Larrañaga maisuarekin harreman ona daukat eta beti aritzen ginen baserriko kontuez-eta berbetan. Hau falta dela, beste sortu beharko genukeela eta horrela. Egun batean, egur kon-

tuez ari ginela, esan nion ez zegoela alturara inausten zuen makinari. Eskuz bost bat metrora iritsi zaitezke gaur, baina hortik gorako adarretara lurretik iristea zaila dago, eta hortik dator ideia hau. Garai horretan bertan aurkeztu zuten Asmaola proiektua ere, eta ideia hori aurkeztea erabaki nuen. Abuzturako landu nuen proiektua, maisuaren ekarpenak ere jaso nituen eta 3Dn ere egin nuen eredu.

Zer ikasi duzu zuk? Zein izan da zure gaur arteko ibilbidea?

Proiektu Mekanikoen Diseinua izeneko modulua egin nuen IMHn, eta gero lau urteko aparejadore ikasketak, EHU, Donostian. Gero, makina-erremintaren museoan jardun dut aparejadore eta delineatzaile lanetan. Museoa 1998an zabaldu zuten eta ordutik hona aldaketa asko izan dira han. Makinak gehitu dituzte, besteak beste, eta Pedrori galdetu nion ia nahiko lukeen museo oso-osoa diseinatzea, non zer jarri, makinentzako polea guztiak marraztu, eta bide batez ezinduentzako komuna jartzeko obra ere diseinatzea. Makina-erremintaren mendeurrenaren harira kalera ere atera dituzte makina batzuk –hamaika guztira–, eta horiek kalean jartzeko kabinak neuk diseinatu eta egin nituen.

Behar bati erantzuten dio, beraz, proiektu honek.

Bai. Eskolan pinuaren bueltan izaten genituen berriketaldietatik sortu zen ideia, eta bai, behar bati erantzuten dio proiektuak. Ni eguneko hogeita lau orduz nago pentsatzen, zer egin asmatzen. Badakizu zer gertatzen den?

Askotan bakarrik ibiltzen naizela baserrian lanean, eta bueltan laguntzeko inor ez daukanean asko pentsatu behar izaten duela batak. Bakarrik moldatuko bazara, irudimena erabiltzera behartuta zaude. Uste dut hortxe dagoela kontua: beharra eta sormena lotuta daudela esango nuke, beharrak irudimena erabiltzera behartzen gaituelako eta modu horretan bakarrik sortzen direlako gauza berriak. Esango nuke kalean hazi denaren eta baserri bueltan hazi denaren beharrak ezberdinak direla, gainera. Baserrian gehiago nekatu behar izaten da burua. Bateko, arbolara iristeko zailasunak dituzula, besteko sagardoa egiteko makinaren motorra izorrratu dela... Nik uste dut gazte askok dena izan dutela eskura, eta jakina, behar duzun guztia gurasoek ematen badizute, nekez erabiliko duzu irudimena. Beti esaten den kontua da, baina ni neu konforme nago. Behetik hasi behar da hemen lanean. Niri hori irakatsi didate gurasoek, eta uste dut irakaspen ona dela. Ezin dut pentsatu ingeniariak ikasi duen bat zuzenean ingeniari lanean hasiko denik. Bai, badakit norbaitek pentsatuko duela 'gazte hau zoroa dago', baina nik horrela pentsatzen dut.

Zein fasetan dago orain proiektua?

Idea aurkeztu eta marraztu dugu egin nahi dugun hori, eta orain, proiektua gauzatu behar dugu. Esandako ordu kopuru jakin baten barruan idatzi behar dugu orain proiektua. Ni, baina, lanean nago, lbarmian, eta astiz larri nabilenez, Claudia Manzano zarautzarrari laga diot proiektua, berak egin dezan. Ingeniaritza duala ikasten dihardu Claudiak IMHn, eta ez duenez lortu proiektua egin ahal izateko enpresa bat, berak dihardu honetan. Lanetik irtendakoan,

astean egun bat-edo, IMHra joaten naiz eta bion artean jarduten dugu proiektuan lanean, talde lanean.

Ikargarria izan behar du denbora luzez norbere buruan egosi dena gauzatzen dela ikusteak. Ala?

Izango da, bai. Makina hori pinuan gora ikusten dudanean ikargarria izango da, bai.

Noizko egongo da ikusgai makina hori?

Neuk ere ez dakit argi zelan izaten den hori. Beharbada joan nintekeen beste enpresaren batera proiektuarekin, ez dakit, baina nik Asmaolan laga dut. Noizbait norbaitek dirua jartzen badu, IMHn bertan egingo da makina hori. Edo beharbada interesatuko zaio beste enpresa bati. Ez dakit nola izaten diren kontu horiek.

IMHn bertan ere ikasi duzu zuk. Zer da zuretzat IMH?

Euskal Herriko Unibertsitatea eta IMH probatu ditut nik. Proiektu Mekanikoen Diseinua ikasi dut IMHn, eta eskola honetan aukera eman didate praktikak egin eta teoria makinetan aplikatzeko. Iru-ditzen zait hori dela ikasteko bidea. EHU teoria asko ikasi dugu, baina teoria hori praktikan jarri gabe irten dira asko eskolatik.

Esango nuke lan merkatutako saltoa errazten duela IMHk, bi hilabetez praktikak egiteko aukera emanda.

Esan duzun bezala, zure burua hogeita lau orduz ari bada lanean, honezkero izango duzu beste ideien bat, ala?

Bai, badaukat beste ideia bat datorren urterako, baina ezin dizut kontatu.

Makina-erremintan aurre-aurrean dabil-tzan lagunez beteta zegoen ostiralean

IMHko aretoa. Saria jaso zenuenetk, hurbildu zaizu norbait?

Ez da egun askorik ere pasatu [astelehenean egin genion elkarrizketa], baina batzuk gerturatu zaizkit, bai, eta pentsatu nahi dut ateren bat zabaltzeko balioko didala.

Aurkeztu zara aurrez beste lehiaketaren batera?

Ez, baina beste proiektu bat onartu dit aurten Elgoibarko Udalak: txori-kabien proiektua. Gaur bertan lanetik irten eta Ludotekara goaz txori habiak egitera. Lara eta Nora Miguez ahizpek laguntzen didate honetan.

Lanean diharduzu gaur, lbarmian. Zein da zure lana?

Makina-erremintako enpresa da lbarmia, eta zentro mekanizatuak egiten dituzte. Nik, baina, museoan egiten jardun nuenaren antzeko lanean dihardut han. Obra egin nahi dute enpresa handitzeko eta hango makinak gero nola kolokatu aztertzen dihardut. Gero, obra hasten dutenean, neu izango naiz arkitektoak eta gainerako gremioak koordinatuko dituena. Horrez gain, makina baten tresneria diseinatzen ere badihardut. Beraz, delineatzaile eta aparejadore lanetan dihardut.

Sortzen jarraitu nahiko zenukeela iradoki duzu, baina non ikusten duzu zure burua epe labur batera?

Orain, momentuz, lbarmiarekin kunplitu nahiko nuke. Haiekin daukat kontratua sinatuta eta ahal den ondoen bete nahiko nuke. Sortzen ere jarraituko dut astirik baldin badaukat, burua etengabe daukadalako bueltaka eta ideiak baditudalako.

“Makina hau pinuan gora lanean ikustea ikargarria izango da”

PILAR ARRIOLA

Korrikalaria

20. aldiz egin du Pilar Arriolak Behobia-Donostia lasterketa. 1993an egin zuen estreinakoz, eta ordutik bi aldiz huts egin du soilik. 1:26an dauka denborarik onena.

Zelan joan da zure 20. Behobia-Donostia lasterketa?

Oso ondo, fenomeno. Iaz baino lau minutu gutxiago behar izan ditut, eta urte bat gehiagorekin lau minutu gutxiagoan egitea, emaitza oso ona da. Oso eguraldi ona egin zuen korrika egiteko, eta iaz baino gehiago entrenatu naiz, beraz, egun biribila izan zen.

Aurten, gainera, hiru ahizpak egin duzue Behobia-Donostia lasterketa, ezta?

Bai. Agurtzanek laugarren aldiz egin du aurten, eta Junkalek lehenengo aldiz. Nire hogeigarren aldia eta Junkalen lehenengo! Politza izan da. Ez dira asko egongo hiru ahizpa batera Behobia egiten. Ni aurretik irten nintzen, 10:06an, eta eurak 10:26an irten ziren. Bukaeran elkartu ginen, eta eurak ere oso ondo ibili zirela esan zidaten. Oso pozik geratu ginen hirurok.

Hogei edizioetan lortu duzu lasterketa bukatzea?

Bai, beti bukatu izan dut. 93an egin nuen estreinakoz, eta ordutik 2002an huts egin nuen haurdun nengoelako, eta 2005ean; bigarren umea jaiotzen zenean eta ez nuen izan lasterketa prestatzeko astirik. Derrigorrean utzi behar izan dut bi edizio horietan, bestela ez nuke huts egingo.

Nola aldatu da Behobia-Donostia lasterketa hogei urtean?

Izugarri aldatu da. Izena emateko modua ere desberdina da. Lehen Eibarrera joaten ginen, Askasibar dendara. Izenemate orria bete, eta handik egun batzuetara iristen zen dortsala dendara, eta bila joaten ginen. Orain sei hilabete aurretik eman behar da izena. Lasterketa ere desberdina zen: Ez zegoen denbora neurtzeko txipik, eta denok batera iritertzen ginen. Oso desberdina izaten zen aurrean edo atzean iritertzea, eta ni beti oso lehiakorra izan naizenez, lasterketa hasi baino 40-50 minutu aurretik egoten nintzen han, aurrean irten ahal izateko. Hiru mila lagun edo izango ginen asko jota, gaur egungoarekin alderatuta gutxi, baina denbora denontzat hasten zen batera kontatzen, eta aurrean iritertzea garrantzitsua izaten zen denborarik ez galtzeko. Gaur egun, txiparekin ez dago horrelako arazorik. Horrez gain, ikusleak ere asko ugartu dira. Lehen ere egoten zen jendea ibilbidean zehar, baina gaurko



aldean, oso gutxi.

Aurten ibilbidean berrikuntzak egon dira. Zer iruditu zaizu?

Bai. Aurten lasterketaren 50. urteurrena izan da, eta uste dut ibilbide hau lehenengo edizioko berbera izan dela. Niri gustatu zait. Erreterian eta Pasaian jende pila bat egon zen animoak ematen, eta sekulako giroa egon zen. Txistulariak, trikitilariak eta musika mota desberdinak entzuten ziren, eta balkoietan ere jende asko egon zen korrikalariak animatzen. Oso politza izan da. Batzuek esan dute aurreko urteetako ibilbidea azkarragoa dela, baina nik ez dut alde handirik igarri. Niri gehiago gustatu zait ibilbide hau.

30.000 lagunek hartu dute parte. Korrikalari batzuek esaten dute jendeak berak laguntzen duela helmugara iristen, baina beste batzuek ez zaie gustatzen horrenbeste jenderen artean korrika egitea. Zuk zer uste duzu?

Niri gustatzen zait, eta jendeak ez dit trabarik egiten. 30.000 lagun izan gara, baina bakoitzak bere irteera ordua daukanez, bi mila lagun baino gehiago ez gara iritertzen une berean, eta kopuru hori ez da horrenbestekoa. Beste lasterketa batzuetan ere bi mila lagun aurkitu daitezke, eta kale estuagoetan gainera. Jende gutxiarekin korrika egin eta marka egin nahi duenak baditu beste lasterketa batzuk. Behobia ez da marka egiteko lasterketa bat. Behobia berezia da, jai moduko bat. Bestelako lasterketa asko daude urtean zehar, baina Behobia berezia da, bai niretzat eta baita beste askorentzat ere. Behobian ikusten duzu beste edozein lasterketatan ikusten ez duzun jendea. Horrek ez du esan nahi edonork egin dezakeenik. Hainbeste jende parte hartzen duenez, ematen du edonork joan ditekela, baina 20 kilometro korrika egitea ez da broma. Entrenatu gabe joanda oso zaila da lasterketa amaitzea, eta nire ustez, gainera ez du merezi.

“Behobia lasterketa berezia da; atletismoaren jai moduko bat”

1993ko argazkia, Pilarrek estreinako Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zueneko. Elgoibarko hainbat korrikalari joan ziren orduan ere.

Gaur egun emakume askok hartzen dute parte, baina 93an ez zineten asko izango, ezta?

Gutxi ginen, bai. 93an, nire estreinako aldian, aurten baino lau minutu gehiago egin nituen (1:38) eta sailkapen nagusian 20. emakumezkoa izan nintzen. Aurten auskalo zein postutan sartu naizen!

Elgoibarko Udalak Mintxeta atletismo taldearekin batera Korrikedada egitasmoa abiatu du, emakumeak korrika egitera animatzeko. Zer iruditzen zaizu?

Oso ondo iruditzen zait. Nik betidanik egin izan dut korrika eta ez daukat horrelako egitasmoen beharrik. Ohituta nago edonorekin korrika egiten, eta bakarrik ere ibiltzen naiz askotan, baina jende asko dago korrika egitera irteteko zailtasunak dituena, eta bereziki emakumeak. Lotsa ematen die batzuei, beste batzuek ez daukate norekin irten eta bakarrik ez dute nahi izaten... Korrikedadak babesa ematen du, eta koadrilan errazagoa korrika hastea da. Askotan ikusten ditut Mintxetan entrenatzen eta sekulako giroa daukate euren artean.

Zu nola hasi zinen korrika?

10 urterekin hasi nintzen, eta 46 dauzkat! Bizitza guztia daramat korrika. Eskolarteko Jokoetan hasi nintzen atletismoan, 4. mailan nengoe-la. Orduan Mintxeta ez zegoen, eta Pista Beltzean egiten genuen korrika, urtean hiru edo lau zapatutan. Ego-Toki elkarteak etortzen ziren denborak hartzera, eta urte hartan neuk irabazi nuen. Jose Luis Oriaren Ego-Tokiko kideetako bat, eta ia eurekin entrenatu nahi nuen galdetu zidan. Amari galdetu nion, eta baietz esan zidan. Nire atzetik nire hiru ahizpak ere hasi ziren atletismoan. Sasoi batean anaia futbolearen eta lau ahizpak korrika ibiltzen ginen. Amak esaten digu sarritan nahikoa lan egin duela gure zapatilak eta erropak garbitzen.

Entrenatzen hasi, eta berehala hasi zinen lasterketetan parte hartzen, ezta?

Bai, astean hiru egunez entrenatzen ginen, eta asteburuetan umeentzako krossetan hartzen genuen parte, 16-17 urtera arte. Gero abiadurako probetan hasi nintzen. Oriak utzi zuenean, Pedro Cardaba hasi zen gu entrenatzen, eta behin eta berriz esaten nion abiadura probaren bat egin nahi nuela, ona nintzela eta Anoetara eraman behar ninduela spint-a probatzera. Halako batean eraman ninduen proba batera: takoak zeuden lurrian, eta tako gainetik irten behar ginen. Sekula horrelakorik egin gabe geunden, eta ez nekienez nola irten behar nintzen, nire aurrekoari begiratu nion. Hura mutila zen, eta normalean mu-

Pilar, Agurtzane eta Junkal Arriola, lasterketa ostean.



tilek gorpuzkera handiagoa dutenez, takoak atzerago jartzen dituzte, eta hura gainera ezkertiarra zen. Berak egin zuen bezalaxe egin nuen, ni ezkertiarra ez izan arren, eta lasterketa irabazi nuen. Donostiako entrenatzaile bat hurreratu zitzaidan ia takoekin irteten banekien galdezka, eta nire estreinako aldia zela esan nion. Harrituta, ia ezkertiarra nintzen galdetu zidan, eta ezetz esan nionean, are gehiago harritu zen. Nongoa nintzen eta nork entrenatzen ninduen galdetu zidan ondoren, eta nire entrenatzailearekin hitz egitera joan zen. Gipuzkoako selekzionatzailea zen, eta berarekin entrenatzen hasi nintzen. 100 eta 200 metroko probetan parte hartzen hasi nintzen, pista estalian eta aire librean. Gipuzkoako txapelketa izan nintzen eta Espainiako txapelketan laugarren egin nuen, bestak beste. 1991n tendinitis bat izan nuen hanka eta ebakuntza egin behar izan zidaten, eta ia aldi berean, lanean hasi nintzen. Kontzentrazioetara joateko ez neukan denborarik, eta hori guztia laga eta nire kontu korrika egiten hastea erabaki nuen.

Eta zer moduz moldatu zinen zure kontura?

Behobia lasterketa egiten hasi nintzen, eta nire bikotekidea, gaur egun nire senarra dena, mendian ibiltzen zen asko eta berarekin joaten hasi nintzen. Mendian korrika egiten hasi nintzen poliki-poliki eta mendiko lasterketen munduan barneratu nintzen. Espainiako txapelduna izan nintzen birritan mendiko maratoiari. Konturatu gabe nire espezialetatea aldatu nuen, baina beti korrika. Egia esan, haurdunaldietan eta hankako ebakuntza egin zidatenean bakarrik utzi izan diot korrika egiteari.

Gaur egun zein da gehien gustatzen zaizun lasterketa mota?

Mendi lasterketak politagoak dira eta gehiago gustatzen zaizkit, baina orain ez daukat behar bezala entrenatzeko astirik. Behobia bezalako lasterketa herrikoiak prestatzeko denbora gutxiago behar da, eta moldatzen naiz, baina mendian korrika egiteko asko entrenatu behar da. Hala ere, lasterketa batzuk egiten ditut: Eibarko Galdaramiñora igoera urtero egiten dut. 15 kilometroko proba da, eta tarte horretan nahiko ondo moldatzen naiz. Proba motzak badira, eta etxetik gertu, saiatzen naiz joaten.

Bihar Karakateko igoeran ikusiko zaitugu?

Ez, ez dut egingo. Karakateko igoera oso gogorra da, laburra baina lehortzeko modukoa. Gainera azken lau hilabeteetan gutxienez ez naiz Karakatera joan. Karakateko igoera gazteentzat lagako dugu.

Aurrera begira zein da zure asmoa?

Ahal dudan bitartean korrika egiten segitzeko asmoa daukat. Orain seme-alabekin zailagoa da, ez daukadalako horrenbeste denbora entrenatzeko, eta asteburuetan ere askotan eurek izaten dituztelako lasterketak. Beti begiratzen dut euren lasterketetan nagusiek parte hartzeko aukerarik duten, eta saiatzen naiz moldatzen.

84 elgoibartar eta 23 mendaroar Behobia-Donostian

Behobia-Donostia herri lasterketan aurten izan den parte-hartze handia eraman dute titularretara hedabide guztiek. Handia izan baita, orain arteko handiena: 26.428 lagunekoa. Elgoibartik eta Mendarotik ere jende asko joan da aurten, eta hemen daukazue joandakoen sailkapenak. Sailkapen nagusian, Jose Carlos Hernandez (1:01:40) eta Vanessa Veiga (1:09:58) izan ziren azkarrenak.

ELGOIBARTAR ETA MENDAROAREN SAILKAPENA

Izen-abizenak	Postua	Denbora	Izen-abizenak	Postua	Denbora
1. Alberto Revuelta Garcia	14	01:06:46	58. Mikel Arriola Etxeberria	13.908	01:43:49
2. Jon Garate Badiola	245	01:14:02	59. Ismene Fulgencio Elizburu	14.531	01:44:42
3. Jose Antonio Ruiz del Rey	507	01:17:01	60. Gotzon Gurrutxaga Bengoetxea	14.651	01:44:51
4. Julen Azpiazu Garay	707	01:18:29	61. Igor Etxeberria Zulaika	15.342	01:45:56
5. Berez Ortiz Ardanza	1.385	01:22:00	62. Ion Lopez de Sabando	15.567	01:46:17
6. Gurutz Quintano Agirrezabal	1.417	01:22:08	63. Gaizka Iglesias Husillos	15.669	01:46:28
7. Iñigo Iturbe Ortiz de Zarate	1.505	01:22:34	64. Eduardo Armendia Azaldegi	15.704	01:46:33
8. Julen Salaberria Anton	1.739	01:23:22	65. Daniel Lopez Husillos	15.752	01:46:37
9. Haritz Arribillaga Elizburu	1.743	01:23:22	66. Koldo Aldalur Uranga	15.912	01:46:51
10. Lander Azpiazu Garay	1.925	01:23:52	67. Maite Uribe Odria	16.082	01:47:05
11. Fernando Calvo Minchinela	2.018	01:24:06	68. Sandra Montes Perez	16.414	01:47:35
12. Oier Irazabal Garciandia	2.048	01:24:12	69. Susana Azpilikueta Gurrutxaga	16.871	01:48:17
13. Ion Irazabal Garciandia	2.049	01:24:12	70. Oier Ramos Miguel	17.691	01:49:37
14. Iñigo Aduriz Lekuona	2.284	01:24:46	71. Iker Ecenarro Iso	18.419	01:50:53
15. Josu Orbea Ostolaza	2.763	01:26:11	72. Ernesto Ecenarro Iso	18.421	01:50:54
16. Iosu Zubiaurre Jauregi	2.775	01:26:13	73. Ander Gabilondo Inchausti	18.426	01:50:54
17. Miguel Angelmontes Mujika	2.831	01:26:23	74. Gonzalo Solas Zubiaurre	18.822	01:51:40
18. Asier Arzamendi Mujika	3.243	01:27:18	75. Azucena Sanz Mahave	19.633	01:53:10
19. Igor Torres Castilla	3.386	01:27:34	76. Iñaki Barrutia Mugerza	19.634	01:53:10
20. Sergio Agirregomezkorta	3.526	01:27:53	77. Eneko Arrizabalaga Garate	20.200	01:54:15
21. Asier Arrieta Vallejo	3.947	01:28:44	78. Aritz Garcia Molledo	20.244	01:54:19
22. Francisco Javier Huertos Izquierdo	4.399	01:29:27	79. Santi Fernandez Perez	20.935	01:55:48
23. Jonathan Aldazabal Villagarcia	4.904	01:30:22	80. Rafael Hernandez Rodriguez	22.291	01:55:48
24. Cristina Villalobos Santos	5.248	01:31:00	81. Ion Perez Arizmendi	22.601	01:59:28
25. Oscar Simon Porcel	5.468	01:31:23	82. Ramon Zapata Valdes	25.175	02:10:49
26. Juanjo Roldan Merino	5.582	01:31:36	83. Cristina Lorenzo Andrade	25.780	02:18:03
27. Guillermo Ecenarro Iso	5.741	01:31:53			
28. Brun Guerrero Labanda	6.188	01:32:36			
29. Iker Panizo Diego	6.190	01:32:37	Handbike modalitatean		
30. Javier Hernando Albert	6.683	01:33:29	1. Igor Elizburu	11	01:00:40
31. Iosu Iriondo Elorza	7.065	01:34:05			
32. Iban Camacho Arrizabalaga	7.098	01:34:10			
33. Pilar Arriola Diez	7.402	01:34:39	MENDARO		
34. Mikel Agullo Ruano	7.893	01:35:20	1. Aritz Ruiz de la Torre Acha	27	01:07:44
35. Pedro Iparragirre Sopelana	7.957	01:35:27	2. Alonso Gomez Viña	114	01:11:16
36. Alberto Iriondo Elustondo	7.962	01:35:27	3. Gotzon Zulaika Arakistain	315	01:15:03
37. Joseba Sagasta Anton	8.053	01:35:36	4. Miguel Angelurkiza Anakabe	2.395	01:22:19
38. Mikel Kortabitarte Berasaluze	8.628	01:36:23	5. Jurdan Ezenarro Arriola	2.395	01:25:04
39. Andoni Gabilondo Argarate	8.683	01:36:28	6. Israel Soto Calderon	2.684	01:25:56
40. Carlos Ayesta Arruza	8.985	01:36:54	7. David Garcia Fernandez	3.543	01:27:54
41. Eduardo Varona Abaitua	9.368	01:37:29	8. Igor Ezenarro Arriola	4.513	01:29:38
42. Angel Eguren Belaustegi	9.658	01:37:55	9. Segundo Virgilio Guano Laguarquiza	5.087	01:30:42
43. Roberto Gonzalez Fernandez	9.828	01:38:09	10. Silver Rodriguez Salgado	5.403	01:31:17
44. Joseba Andoni Juaristi	9.866	01:38:12	11. Imanol Esnaola Alba	8.207	01:35:48
45. Daniel Frontaura Vidal	9.919	01:38:17	12. Eneko Salegi Leniz	9.098	01:37:05
46. Anton Mendizabal Echaniz	9.934	01:38:18	13. Patxi Salegi Martija	9.445	01:37:38
47. Agurtzane Arriola Diez	9.949	01:38:20	14. Aitzol Ezenarro Arriola	10.338	01:38:49
48. Junkal Arriola Diez	9.951	01:38:20	15. Egoitz Mendikute Ferreira	11.024	01:39:43
49. Imanol Calleja Etxaniz	10.093	01:38:30	16. Haritz Ortega Longarte	11.203	01:39:56
50. Alfonso Leo Chavez	10.381	01:38:52	17. Julen Arrillaga Mugerza	11.887	01:35:48
51. Miren Ramos San Martin	11.187	01:39:55	18. Aitor Etxeberria Perez	13.745	01:43:35
52. Lourdes San Martin Andonegi	11.192	01:39:55	19. Jon Mendikute Arriola	14.142	01:44:09
53. Ibon Villanueva Altuna	13.007	01:42:32	20. Mikel Fernandez Sukia	16.081	01:47:05
54. Miguel Castro Garrues	13.385	01:43:05	21. Robertomangana Miguel	19.201	01:52:22
55. Maite Landaburu Azkarreta	13.396	01:43:06	22. Ainhoa Etxeberria Perez	22.989	02:00:43
56. Aitor Zubiaurre Lizarralde	13.398	01:43:06	23. Ramon Ugarte Olaetxea	25.548	02:14:50
57. Nerea Sanz Avila	13.579	01:43:21			



Eskuz

altzariak lantzen

Orain dela 17 bat urte sortu zuten Eskuz taldea, emakumeak biltzeko talde modura. Gaur egun ez da emakumeen taldea soilik, eta gizonzkoek ere hartu dezakete parte, baina hala ere, gehiengoak emakumezkoak dira. Astean pare bat aldiz biltzen dira Pedro Muguruzako ikastetxean duten lokalean, altzariak berritzeko. Nieves Maidagan eibartarra da irakaslea, eta hark ematen dizkie lanerako argibideak.

Ainhoa Andonegi

Urrian hasi zuten ikasturtea Eskuz arte eskolako kideek, eta maiatzera bitartean bilduko dira martitzen eta eguenetan, elkarteak Pedro Muguruzako eskolan duen lokalean. Altzariak birziklatu eta zaharberritzen dituzte, Nieves Maidagan irakaslearen laguntzarekin. Ikasturtea hasita dagoen arren, interesa duenak zabalik aurkituko du eskolako atea, eta han agertzearekin nahikoa da ikastaroan izena emateko. Martitzen eta eguenetan biltzen dira, 15:00etatik 17:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Udalak diruz lagundutako ikastaroa da. Ikasle bakoitzak 40 euroko kuota ordaindu behar du hilean, eta horren barruan sartzen dira ikastaroa burutzeko beharrezkoak diren materialak. Norberak ilusioa eta gogoia jartzearekin nahikoa da.

Eskulanak baino gehiago

Eskuz arte tallerrean altzariak berritzen dituzte. Lanerako buzoa jarri, eta goitik behera hautsez eta pinturaz zikinduta aurkitu ditugu ikasleak, baina denak pozik. Gustura jotzen dira, eta denbora berehala pasatzen zaie. "Eskulanak egitea baino askoz gehiago" eskaintzen die Eskuz arte eskolak. Lagunak egiteko gunea ere bada, eta egunerokotik alden du eta deskonektatzeko aukera ere ematen die. Bi orduko saio horretan altzariak eta pertsonak bat egiten dute, eta zerrauts artean murgiltzen dira.

Aulki bat margotzen, kutxa bat barnizatzen edota gaileta kaxa bat tapizatzen aurkitu ditugu ikasleak, bakoitzak berea, baina elkarren artean laguntzen. Zalantzak elkarbanatzen dituzte, eta batak besteari laguntzen dio bere lanean. Elkarlanean jarduten dute, Nieves Maidaganen gomendioak jarraituz. Errestaurazio teknika desberdinak lantzen dituzte, eta margo-koloreak ere eurek egiten dituzte, pintura bat bestearekin nahastuta. Bakoitzak bere gustura egiten du lan. Bi urtean behin erakusketa antolatzen dute Kultur Etxean, eta ikastaroan eginiko lanak jartzen dituzte ikusgai. Lan handiak zein txikiak izan, denak bereziak izaten dira, norberak eginikoak direlako.

Etxeetan balio handiko altzariak aurkitu daitezke, eta sarri botatzeko ohitura izaten dugu, hondatuta ikusten ditugulako. Eskuz arte eskolan argi daukate berritze lan gutxi batzuekin, altzariak berri itxura hartzen duela, eta etxea atontzeko balio duela. Sekulako artista izan gabe, teknika egokiak erabiliz, edonork egin ditzake artelan handiak Eskuz aste eskolan.

Nieves Maidagan

ESKUZ ARTE ESKOLAKO IRAKASLEA

Eskultura ikasketak egin zituen Nieves Maidaganek Madrilen, etaaldi berean, altzariak birziklatzen ikasteko kurtso batean eman zuen izena. Senarra ebanista du, eta aspalditik bizi da altzarien munduari lotuta. Bere afiziotik egin du ofizioa. 17 urte daramatza Eskuz arte eskolan irakasle.



“Borondate eta interes apur batekin edonork ikasi dezake altzariak berritzen”

Zer egiten duzue Eskuz arte eskolan?

Altzariak errestauratu eta birziklatzen ditugu. Esate baterako, antzinako koadro zahar bat hartu, markoa garbitu eta margotu, eta beste irudi bat marrazten diogu gainetik. Hori izango litzateke birziklatzea. Errestaurazioa aldiz, zahartuta dagoen zerbait konpontzea da. Bitrina dotore bat zeukan eskritorio bat ekarri ziguten, erabat hondatuta eta sekulako lana egin genuen berritzeko. Hura sekulako

lana izan zen, baina oso ondo geratu zen. Lan txikiak ere egiten ditugu: aulki zaharrak lijatu, margotu eta berriz tapizatu, esate baterako. Nolabait esateko zahartuta ditugun altzariak aprobetxatzen ditugu, errestauraziorik lotutako teknikak erabiliz: polikromia, tapi-zatua, urrezko ogiaren teknika... denak erabiltzen ditugu.

Ikasleek eurek ekartzen dituzte berritzeko altzariak?

Bai. Bakoitzak berri nahi duen altzaria ekartzeak motibatu egiten ditu. Bakoitzak bere helburua dauka: opari bat egin, etxean betidanik ikusi duen altzari bat berri... Edozein izan daiteke motiboa, eta norberak aukeratzaren badu gusturago lantzen dute. Batzuek ez dute jakiten nondik hasi, eta horientzat ere baditugu hemen altzariak. Poliki-poliki hasten dira, eta gero besteen lanak ikusiz, ideiak hartzen dituzte. Edozerk balio du: metalezko

Eskuz arte eskolako ikasle batek berri zuen altzariaren prozesua.





gaileta kaxa batekin edo egurrezko ardo kaxa batekin sekulako lan politak egin daitezke. Jende askok altzariak apur bat hondatzen direnean bota egiten ditu, berriak erosteko, eta ez dira konturatzen apur bat landuta berriak balira moduan utzi daitezkeela. Mahai batek barniza kaltetuta baldin badauka, oso zaila izango da hori konponduko dizun arotza aurkitzea. Ordu asko beharko ditu, eta hori ez dago ordaintzerik. Baina pazientzia apur batekin, norberak egin dezake lan hori gure ikastaroan, eta mahaia primeran geratuko da.

Errestaurazioaz ezer ez dakien jendeak ere hartu dezake parte ikastaroan?

Bai. Hori argi utzi nahi nuke: edozein etorri daiteke altzariak berritzeko ikastarora. Jendeak beldurra dauka, eta askok uste dute eskulanetan txarrak direla, baina hori landu egiten da, eta lantzen ikasi egin daiteke. Bo-

“Errestaurazioa esker onekoa da, eta emaitzak berehala ikusi daitezke”

rondate eta interes apur bat duen edonork ikasi dezake altzariak errestituratu. Ikasle bakoitzak bere erritmoa dauka, eta bakoitzak bere lanak egiten ditu. Ikasle batzuk hasiera-hasieratik daude hemen, orain dela hamazazpi urte nirekin hasi zen emakume batek oraindik jarraitzen du hemen, eta beste batzuk oraintxe hasi dira. Koadro bat margotzea edo eskultura bat egitea desberdina izan daiteke. Horretarako, behar da nolabai-

teko sormena, baina mahai bat apur bat txukundu eta margotzeko ez da ezer behar. Gogo eta ilusioa bakarrik. Gainera, nondik hasi ez dakiten ikasleentzat plantilak ditugu, eta horrekin bakarrik oso lan politak egiten dira. Teknika desberdinak daude, eta denak dira balekoak.

Lanak amaituta ikusteak poza emango die ikasleei, ezta?

Bai, sekulako poza hartzen dute. Erabat hondatuta zegoen altzari bat berrituta ikustea oso polita da, eta norberak berritu badu, satisfazioa askoz handiagoa da. Errestaurazioa esker onekoa da, emaitzak berehala ikusi daitezke, eta emaitza onak. Norberaren egoera pertsonalari ere laguntzen dio. Denborapasa entretenigarria da, lagunak egiten dituzu eta harreman oso estuak sortzen dira. Noizean behin irteerak egiten ditugu elkarrekin, eta museoak ikustera joaten gara.

IBON GURUZETA Ikaslea

Ibon Guruzeta da une honetan altzariak zaharberritzeko ikastaroan dabilen mutil bakarra. Hasiberria da, eta esan duenez, sekula ez da izan oso abila eskulanetarako. Gehiegi pentsatu gabe eman zuen izena, baina gustura dabil. Pozik joaten da ikastarora, eta bere lana itxura hartzen hasi dela ikusteak aurrera jarraitzeko ilusioa ematen dio. Txanpon bildumak egiten ditu, eta antzinako gauzak ere atsegin ditu. Mota guztieta-ko azokak bisitatzen ditu ahal duen oro: “Emaztea aspertuta daukat”, esan du irribarrez. Azkenekoz Galdakaoko denda batera joan zen, bere bildumarako objekturen baten bila. Ez zuen nahi zuen hura aurkitu, baina aintzinako kutxa zahar bat ikusi zuen. Alabarentzat polita izan zitekeela pentsatu zuen, eta erosi egin zuen. Zahartuta eta hondatuta zegoen, eta hasiera batean ez zekien kutxa harekin zer egingo zuen ere, baina badaezpada, etxera eraman zuen. Altzariak zaharberritzeko ikastaroren baten bila hasi zen, eta halaxe iritsi zen Eskuz arte eskolara. Alabari gustatuko zaiolakoan, ilusioz dihardu kutxa zaharberritzen.





GAZTEA DANTZAN

Biraka ballet eskolako Mendaroko ikasle talde bat Euskadi Gazteako 'Gaztea Dantzán' lehiaketako finalera iritsi dira. Bederatzi neska dira, 12 eta 16 urte bitartekoak, eta eskola orduan grabatutako bideo xume batekin sailkatu dira finalerako. Haiekin eta haien irakasle den Rosa Marinekin batu gara eta ikasle gazteagoak ere ezagutu ditugu.



Ainara Argoitia

Goiuri Urain, Leire Kerexeta, eta Marina Rico tente, eta makurtuta: Nerea Arriola, Irati Agirrezabala, Ruth eta Jara Larrañaga eta Enara Agirrezabala.

Michel Jacsonen *Billie Jean* abestiarekin sailkatu ziren Euskadi Gazteako *Gaztea Dantzán* lehiaketako finalerako, eta epaimahaiak finalerako aukeratu zituen hogei taldeetatik bederatzigarren talde bozkatuena izan da Entzulearen Saria atalean. Goiuri Urain, Enara eta Irati Agirrezabala ahizpak, Celia Rico eta Marina Rico ahizpak, Leire Kerexeta, Jara eta Ruth Larrañaga aizpak eta Nerea Arriola dira, 12 eta 16 urte bitarteko mendaroarrak. Josu Mujika koreografo elgoibartarrak zuzendutako Biraka dantza taldeko neskek dira, gaur Rosa Marin irakaslearen agindutara dihardutenak. Ballet ikasleak dira, baina irratirako aurkeztu duten koreografian balleteko pauso klasikoak eta dantza modernoko pausoak uztartu dituzte. Eta hain zuzen ere, horixe goratu zuen epaimahaiak mendaroarren koreografia finalerako nabarmendu zuenean, eta horretxi helitzen diote orain Marinaren neskek. "Epaima-

haiaren Saria gelditzen da oraindik, eta irabazteko aukerak baditugu, gainerakoenen aldean gure koreografia teknikoagoa behintzat badelako, esan du Leire Kerexetak, eta baietz dio buruarekin irakasleak. "Epaimahai osatzen dutenen artean dantza munduko jendea baldin badago, behinik behin, aukera badute oraindik sariren bat jasotzeko". Eta zain daude, epaimahaiaren erabakiaren zain. "Ikaragarria izango litzateke. Dirutan sari txikiagoa den arren [750 euro taldeen kasuan], guretzat balio handiagoa duelako", esan du Goiurik. Atzo zuten epaimahaiaren saria jakinaraztekoa, Euskadi Gazteako DIDA saioan.

Ballet eskola

Mendaroko Ballet eskolako dantzari zaharrenak dira, 16 urte baino ez dituen arren zaharrenak, eta astean birritan batzen dira Azpilgoetako lokalean, entseguetarako. Gehienak 3-4 urterekin hasi ziren balletean,

eta batez beste, hamar urte egin dituzte da-goeneko. Gaur [martitzena], gaztetxoekin batera ari dira koreografia bat prestatzen. "Garrantzitsua da elkarrekin aritzea, hasi berrirentzat hauek direlako erreferente. Denek nahi dute eurek bezala dantzatu, eta zaharragoekin aritzeak euren onena ematera bultzatzen ditu", esan du horren harira irakasleak. 16 urterekin, Goiuri Urain da txikienean irakaslea eta "pieza klabea" da eskolan, Rosaren arabera, zubi-lana egiten duelako. 4 urterekin hasten dira balletean haurrak, eta gaur, 30 bat lagun ari dira Mendaron; 30 neska; izan ere, maskulinotasunaren eta femeninotasunaren modelo tradizionalak indar handia daukate oraindik eta faktore horiek eragin handia dute ikasleen -haurren- erabakietan, zenbaitetan, ikasleen aukeratzeko ahalmena eta haien askatasuna mugatzerainokoa. Garbi ikusten du hori Rosak: "5-6 urteko mutilak izan ditugu balletean, baina gero lagunak hasten zaizkie galdezka ia zergatik etor-



tzen diren balletera eta ez futbolera, eta etorzeari lagatzen diote. Pena da”.

4 urtetik 16 urtera artekoak daude taldean, eta entseguetan ez ezik jaialdietan ere aritu dira nahastuta. Lehiaketara aurkeztu duten koreografia hau aurrenekoz jende aurrean dantzatu zuten jaialdian ere parte hartu zuten txikiek. Iaz izan zen jaialdi hori, Mendarón, eta orduan dantzatu zituzten lau koreografiatako bat da orain lehiaketara aurkeztu dutena.

Lehiaketara begira

Enara Agirrezabalak izan zuen Gaztea Dantzan lehiaketaren berri, eta berehala kontzertu zituen lagunak. Hori bai, kostatu zitzairen irakasleari esatea. “Lotsa ere emango zien. Ez ziren ausartzen eta amen bidetik iritsi zitzaidan aurkezteko ilusioz zeudela”, dio Rosak. Behin irakasleari esanda, azkar batean egin zuten dena. “Lehiaketako baldintzek zehazten zuten gutxienez 60 segundoko dantza izan behar zela eta erabaki genuen iaz egin genuenetako bat hartzea. Hiru egunez entsegatu genuen, hemen bertan, eta

laugarrenean grabatu genuen”, esan du Goiurik. Gelan grabatu zuten, sakelako telefono batekin, baina gerora jabetu dira gainerako lehiakideek “serio” hartu zutela lan hau. “Sekulako bideoak grabatu ditu jendeak. Lokal handietan eta kamera onekin”, gehitu du Celiak. Jabetu dira horrek “ikusgarriago” egiten dituela bideoetako asko, eta jakin bada-kite “bideo dotorea” aurkeztea abantaila bat dela, boto-emateen artean ziurrenik gehiago direlako dantzako pausoei baino gehiago ikusgarritasun horri erreparatzen diotenak. “Zenbat jenderengana iristen zaren da kontua, eta hor guk ezin dugu lehiatu. Batetik, bideoaren kalitateagatik, eta bestetik, taldearen ezaugarriengatik. Gure aldean talde jendetsuak aurkeztu dira lehiaketara, akademia osoak ere bai, eta normala denez, haien ingurua zabalagoa da gurearen aldean”, zehaztu du Leire Kerexetak. Hala ere, oso gustura daude izan duten babesarekin. “Mexikotik eta dena bozkatu dituzte!”, bota du irakasleak. “EITBko bideo ikusien artean ere badago guk igotako koreografiaren bideoa. Nola ez gara ba pozik egongo”, dio Celiak.

Aitortu dute ez zutela pentsatu ere egiten horrenbeste boto eskuratuko zituztenik eta pozik daudela lehiaketa honi esker lortu dutelako balleta jende askorengana zabal-tzea. “Gazteako bideoa ikusi zutenean asko etorri zitzaizkigun galdezka ia dantza hori balleta zen. Tutua jantzita eta barra bati helduta irudikatzen gintuztela uste dut, eta hori bada balleta, baina hori baino gehiago ere bada”, nabarmendu du Enarak. Irudipena dute jendeak “oso dantza klasikoekin” lotzen duela balleta eta ahaleginak egin dituzte uste oker hori gezurtatzen. Goiurik hartu du hitza: “Balleteko pausoak dantza modernoan ere erabiltzen dira. Balletean oso ondo pasatzen dugu. Ez da batere aspergarria, eta askok uste dutena baino izerdi gehigo botatzen dugu”. Eta animatu dituzte herritarak probatzera. “Ezjakintasun handia dago, baina probatzen duenari gustatzen zaio”, dio zalantzarako tarterik laga gabe Leirek. Balleteko nagusien taldea martitzen eta eguenetan bazten da entsegatzeko, Azpilgoetako Kultur-gunean, 18:00etatik aurrera. “Atea zabalik daukagu”, bota du Rosak.

Mendaroko ballet eskolako nesketako batzuk martitzeneko entseguan, Rosa Marin eta Goiuri Urain irakasleekin.



‘Euskaraz bizi nahi dut’ flash mob-a antolatu dute herriko hainbat eragilek Euskararen Nazioarteko Egunerako

Entseguak azaroaren 20an hasiko dira

Az hasitako bidetik, aurten ere bat egin dute herriko hainbat elkarte, ikastetxe eta erakundek, eta elkarlanean antolatuko dute Euskararen Nazioarteko Eguna. Abenduaren 3an izango da, eta ospakizun programa osoaren berri aurrerago emango badute ere, dagoeneko jakinarazi dute *Euskaraz bizi nahi dut* flashmob-a egingo dutela. Kalegoen plazan izango da, abenduaren 3an bertan, 19:00etatik aurrera. Josu Mujika dantzari eta koreografo elgoibartarra izango da zuzendaria, eta dantza eskolako ikasleek lagunduta, herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera. Flashmob-a ondo irten dadin hiru entsegu egun jarri dituzte, bakoitzak egokien datorkiona aukera dezan: azaroaren 20an, 25ean eta 27an izango dira saioak, Olaizaga kiroldegian.

Azaroaren 29an, bestalde, entsegu bateratua egingo dute Ikastolako frontoian, 12:00etatik 13:00etara. Nahi duenak <https://www.youtube.com/watch?v=97GFSR-DEZY0> helbidean aurkituko du koreografia.



Astlehenean bukatuko da euskararen erabilerari buruzko mintegian izena emateko epea

Haurren eta nerabeen euskararen erabilera areagotzeko klabeak aztertzeko jardunaldia antolatu du Elgoibarko Izarrak, eta datorren astlehenean bukatuko da izena emateko epea. Euskaraz dakiten haurren eta nerabeen portzentajeak gora egiten badu ere, erabilera datuekin ez da gauza bera gertatzen. Hori dela-eta, haien hizkuntza ohituretan eragiteko estrategiak izango dituzte hizpide mintegian. Hilaren 28an izango da, goizez, IMHn. Izena emateko Elgoibarko Izarrara (943 741 626) edo Euskara Sailera (943 744 366) jo daiteke. Internetez, www.elgoibarkoizarra.com webgunean eman daiteke izena.

Ikastolako hiru ikaslek Bartzelonako Confintean hartu dute parte



Azaroaren 12tik 15era Alaiz Almortzak, Ekhi Lopezek, Hasier Badiolak eta Maria Lasak Agenda 21eko ikastolako arduradunak Bartzelonako Confint konferentzian hartu dute parte. Elgoibar Ikastolako ikasleek hainbat lan aurkeztu dituzte han, besteak beste, Debarreneko arazoaren mapa, eta Elgoibar herriak ingurumena zaintzeko hartu dituen konpromisoak aurkeztu dituen bideo bat.

‘Hiru txerrixoak’ antzerkia, domekan

Umeentzako *Hiru txerrixoak* antzezlanaren taularatuko du Glu Glu taldeak domekan, Herriko Antzokian. Hiru txerrixoek hirigunera bizitzera joatea erabaki dute. Hiriko giroa zaila eta arrotza egingo zaie hasieran: zarrata, kutsadura, argiak, semaforoak... Hiriko zailtasunei neurria hartu dietela uste dutenean, arriskurik handiena ezagutuko dute: otso maltzurra. Umeek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta nagusiek 5 euro.



Makina-erremintaren mendeurrena soinuz janztera dator 'Kataiak' proiektua

Azaroaren 28an ikusi eta entzun ahal izango da, museoan

Kataiak ikus-entzunezkoa aurkeztu zuten atzo Elgoibarko makina-erremintaren museoan, makina-erremintaren mendeurrenako ospakizunen barruan. Aitor Nova musikari elgoibartarraren proiektua da ikus-entzunezko hau eta musika, museoako makinaren hotsak eta enpresetan grabatutako irudiak batzen ditu, makina-erremintaren iragana, oraina eta geroa irudikatuz. Aitor Nova berak ere parte hartuko du zuzeneko musika jartzen. Azaroaren 28an eskainiko dute, eta hiru saio izango dira: 19:30ean, 20:30ean eta 21:30ean, eta sarrera doan izango da.

Ikusleek estimulu asko jasoko dituzte. Izan ere, ikuskizunaren lehenengo zatian, publikoak museoak bisitari bihurtuko da, eta musikariak bertako makinak bailiran jokatu dute. Hala, instrumentuen soinua makinaren hotsekin eta bisitarien pausoekin uztartuko da. Ikuskizunaren bigarren zatia museoako nabe zentralera mugatuko da. Han, zuzeneko musika, elektro-



nika eta irudien bidez, ikus-entzunezko berri bat sortuko dute. Guztira, 30 minutuko saioa izango da.

Santa Zezilia bezperan, gaur zortzi, Ikastolako umeak kalera irtengo dira instrumentuak hartuta



Azaroaren 22an da Santa Zezilia eguna, eta horren harira, gaur zortzi, barixakuan, kalera irtengo dira Elgoibar Ikastolako Lehen Hezkuntzako haurrak instrumentuak hartuta. Kalegoen plazan batuko dira 8:30ean, eta handik Ikastolara arteko bidea egingo dute elkarrekin. Eurria egiten badu Ikastolan bertan egingo dute saioa arratsaldean.

Dantza lehiaketa antolatu dute Mendaron hilaren 29rako

Dantzarako dagoen zaletasuna ikusita, dantza lehiaketa antolatu dute Mendaroko Ludotekak eta Gaztelekuak elkarlanean azaroaren 29rako. Banaka, binaka nahiz taldeka hartu daitezke parte, edozein estilotako dantzarekin, eta ez dago adin mugarik. Aste barruan, Ludotekan egin beharko dira izenemateak, astelehenetik eguenera, 17:00etatik 19:00etara, eta asteburuetan, Gaztelekuan, 18:00etatik 20:00etara. Lehiaketa San Agustín kulturgunean izango da, 18:00etatik aurrera.

Azaroaren 28an bukatuko da Kameratoia rallyrako izena emateko epea

Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya antolatu du Euskaltzaleen Topaguneak hamargarren urtez: Kameratoia. Lehiaketak 48 orduko formatua izango du. Hala, abenduaren 6an, aurkeztu beharreko film laburren gaia eta bertan islatu beharko dituzten ezaugarrien zerrenda jasoko dituzte parte hartzaileek. Kameratoilariak 48 orduko epea izango dute gehienez sei minutuko iraupena izango duen film labur baten gidoia osatu, grabazio lanak egin eta edizio lanak burutzeko. Abenduaren 8an entregatu beharko dituzte bideoak, goizez, eta arratsaldean ospatuko dute gala Durangoko Azokako Irudienea ikus-entzunezkoen plazan (Durangoko Zugaza zinean). Hiru sari izango dira: 1.200 eurokoa, 900 eurokoa eta 600 eurokoa.

18 eta 35 urte bitarteko gazteek parte hartu ahal izango dute, eta lehenengo aurkezten diren 30 taldeek bakarrik izango dute parte-hartzea bermatuta. Informazio gehiagorako: info@kameratoia.com / 673 322 038.

Raiden inguruko saioak hasiko du Morkaikoren mendi emanaldien zikloa

Hilaren 19an izango da lehen saioa, musika eskolan

Azken urteotako ohiturari jarraituz mendi-emanaldia antolatu du Morkaikok azaro-abendu bueltarako. Eguaztenean izango da aurreneko saioa, raid proben inguruan. Imanol Garaizabal eta Aaron Garmendiak eskainiko dute hitzaldia, musika eskolan. Mendi emanaldien ziklo hau beste lau saiok osatuko dute: azaroaren 27an, *Pioletak dantzán* izeneko hitzaldia eskainiko du Iñigo Andolak, leku eta ordu berean, eta abenduaren 2rako, mahai-ingurua antolatu dute. Uxue Fraile, Silvia Trigueros eta Maddi Arrazola gonbidatu dituzte eta Ainhoa Lendinezek zuzenduko du saioa. Abenduaren 11rako, berriz, Alex Txikon eta Ekaitz Maiz ekarriko ditu Morkaikok Herriko Antzokira, Arnaldo Askatu, politi-



ka askatu herri plataformarekin elkarlanean. Bukatzeko, abenduaren 18an, Mikel Arosa, Julen Salaberria eta Eñaut Izagirrek *Eskandinabike* esperientziaren berri emango dute, musika eskolan. 21:00etan hasiko dira saio guztiak.

Asier Urain, Euskadiko txapelduna, motokrosean

Asier Urain elgoibartarrak Euskadiko motokros txapelketa irabazi du, MX85 promesen kategorian. Bederatzi lasterketaz osatutako txapelketa izan da, eta horietatik zazpi irabazi ditu gidari elgoibartarrak. Azken proba Quintanan jokatu zuten, eta proba hori irabazi ostean, bera da txapelduna.



Urbiara irteera, domekan

Herri Eskola eta Ikastolarekin elkarlanean, Urbiara irteera antolatu du Morkaikok, domekarako. Mintxetan elkartuko dira 9:30ean eta autoz joango dira Arantzazura. Handik, oinez egingo dute Urbiara arteko bidea. 11 kilometroko ibilbidea izango da, 500 metroko desnibel positiboarekin. Ikastetxeetan eman behar da izena.

1.077 ikasle dabilta Kirol Patronatuko ikastaroetan

Elgoibarko Kirol Patronatuak jakinarazi duenez, urria eta azaroa bitartean ikastaroetako erabiltzaile kopurua nabarmen igo da. Arrazoietako bat K-stretch eta hipopresio ikastaroek izan duten harrera dela uste dute arduradunek, ikastaro bakoitzean 40 ikaslek eman baitute izena. Une honetan 1.077 ikasle parte hartzen ari dira Udala Kirol Patronatuak eskaintzen dituen hamasei jardueratan.

Nepaleko Sakaton Peak mendian bide berria ireki du Alberto Fernandez elgoibartarrak



Espainiako Mendizale Federazioko alpinista gazteen taldeak, tartean Alberto Fernandez elgoibartarrak, *Pura Vida* ize-

neko bidea ireki du Nepalen, Sakaton Peak (6.325) mendian. Mikel Zabalza (Iruñea, 1970) da taldeko zuzendaria, eta haren aginduetara hiru urtean jardun dute goi mendian trebatzen. Trebakuntzari amaiera emateko Himalaiara joan ziren. Irailaren 25etik urriaren 31ra bitartean Kysar haranean izan dira, Nepalen, eta 6.000 metrotik gorako mendietan eskalatu dute, estilo alpinoan. Mendian libre eta seguru ibiltzen ikasteaz gainera, eskalatzaile gazteek bide berri bat ireki dute, orain arte sekula igo gabeko Sakaton Peak mendian. *Pura Vida* izena jarri diote bideari, Annapurnan hil zen Iñaki Otxoa De Olza mendizale nafarraren omenez. Bide berriak 1.300 metroko desnibela du, eta M5 graduko zailtasuna eta 80 graduko maldak izotzetan. Orokorrean MD+ zailtasuna du. Lau egun eta hiru vivac egin behar izan zituzten igoera osatzeko.

Bihar, azaroak 15, jokatu da Karakateko Igoera

11:00etan abiatuko dira lasterkariak plazatik



Karakateko gaina kirolzalez beteko da bihar, azaroko bigarren larunbatez urtero gertatu ohi den bezala. Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, Karakateko Igoera jokatu da bihar. 11:00etan abiatuko dira lasterkariak Kalegoen plazatik, eta bost sari banatuko dituzte antolatzaileek goian: lehenengo sailkatuari, lehenengo emakumezkoari, lehenengo elgoibartarrei (gizonezkoetan eta emakumezkoetan) eta gora aurpegirik onenarekin iristen denari. Gaur egungo markarik onena Iñigo Lariz elgoibartarrak dauka: laz 38 segundoan hobetu zuen Oier Ariznabarretak 2011n ezarritako denbora, eta 27:38an dago orain probako errekorra.

Antolatzaileek gogorarazi dute bidea ez dela markatuta egongo eta norberak nahi duen lekutik igo ahal izango duela, beti ere baseritarrek jarritako itxiturak errespetatuz. Izenemateak doan izango dira eta interesatuek aurrez (*morkaiko@morkaiko.net* helbidera idatzita) nahiz bihar bertan eman ahal izango dute izena, goizeko 10:00etatik aurrera. Ondorenerako babajana antolatu du Morkaikok, baina aurreratutako gehienez 40 lagunentzako lekua izango dela. Proba ostean, duxatzeko aukera izango da.

Aitziber Olaizolak irabazi du Euskadiko Hiru Txirlo txapelketa emakumezkoetan



Joan zen asteburuan jokatu zuten Euskadiko Hiru Txirlo Txapelketako azken saioa Aiastiako bolatokian, eta az-

ken jaurtialdiaren ostean, Aitziber Olaizola elgoibartarrak jantzi zuen txapela emakumezkoetan, bost txirlorekin. Gizonezkoetan Floreagako Gorka Etxanizek irabazi du txapelketa, 15 txirlorekin, eta Asola Berriko Ibai Diez eta Aiastiako Imanol eta Jabier Osorok 14 txirlo bota dituzte. Bikotekako sailkapenari dagokionean, bestalde, Aiastiako bi bikote ageri dira sailkapen nagusiko lehen bi postuetan: Jabier eta Imanol Osorok 28 txirlo bota dituzte bien artean, eta Xabier Loiola eta Angel Ibarluzeak 27 txirlo.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 0 – Hondarribi 0 (Pref.)
Zestoa 1 – Elgoibar 3 (Erreg.)
Elgoibar 2 – Bergara 0 (Jub.)
Aurrera 1 – Elgoibar 2 (Kad. A)
Elgoibar 4 – Aurrera 0 (Kad. B)
Mutriku 0 – Elgoibar 4 (Lehenengo inf.)
Lagun Onak 4 – Elgoibar 1 (Inf. Txiki)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 17 – Arrasate 22 (2. mailako jub.)

Pala

Lagunak 25 – Azkoitia 19 (2. mailako nag.)
Loiolatarra 16 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Rioja Alavesa 2 – Concepto Egile 4 (2B)

ESKUBALOIA

Ikus Elg. 26 – Pulpo 11 (Inf. neska.)
Aloña Mendi 18 – Cometel Elg. 22 (Inf. neska.)
Pulpo 10 – San Roke Elg. 8 (Inf. neska.)
Pneumax Elg. 21 – Ordizia 10 (Kad. neska.)
Eibar 6 – Txarriduna Elg. 42 (Inf. mut.)
Aloña Mendi 32 – Bankoa Elg. 42 (Inf. mut.)
Errotaberri 31 – Astigarraga Elg. 22 (Jub. neska.)
Gabaz Elg. 22 – Donibane 27 (Sen. mut.)
Alkorta Elg. 33 – Egia 28 (Sen. mut.)
Lagunak 24 – Lauko Elg. 26 (Sen. neska.)
Murgil Elg. 19 – Arrasate 12 (Inf. mut.)
Hondarribi 23 – Beristain Elg. 28 (Jub. mut.)
Ereintza 33 – Deca Elg. 32 (Kad. mut.)

AGENDA

FUTBOLA (Minxetan)

Zapatua, 15

10:00 Elgoibar – Antzuola (Inf.)
11:30 Elgoibar – Arrasate (Inf. Txiki.)
16:30 Elgoibar – Zarautz (Erreg.)

Domeka, 16

12:00 Elgoibar – Arrasate (Kad.)

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Domeka, 16

12:30 Concepto Egile Elg. – Ebrosala (2B)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 15

11:15 San Roke Elg. – Ikus Elg. (Inf. neska.)
12:30 Cometel Elg. – Pulpo (Inf. neska.)
16:00 Bankoa Elg. – Urrietako (Kad. mut.)
17:30 Beristain Elg. – Egibide (Jub. mut.)
19:00 Deca Elg. – Hondarribi (Kad. mut.)

Domeka, 16

9:15 Sukia A Elg. – Sukia B Elg. (Aleb. neska.)
10:30 Txarriduna Elg. – Egia B (Inf. mut.)

PILOTA

Barixakua, 14

20:30 Lagunak – Batzokiko (2. mailako nag.)

ETXEBIZITZAK

- 7 urteko etxebizitza eta bat eginik dauden bi garaje (43m²) salgai, Mendaron. Oso egoera onean. 118m². (3. solairua). Hall-a, 3 logela, sukaldia, 2 komun, egongela eta 20m²-ko terraza. Komunitateko lorategia eta haurrentzako jolas-gunea. Bista ezhobek. 27m²-ko trastelekua aukeran.
☎ 616 668 742
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Bi edo hiru logelakoa.
☎ 631 098 995

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. Esperientzia daukat.
☎ 606 859 448
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, orduka. Esperientzia daukat. Dendetan ere lan egiteko prest. Jendaurrean lan egiteko doaiak ditut.
☎ 622 501 834
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Interna ere bai.
☎ 688 682 398
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Asteburuetan, orduka edo interna, gauetz... Ordu-tegi malgutasun handia. Esperientzia daukat.
☎ 626 914 904
- 30 urteko emakumea lan bila. Zerbitzari lanetan, umeak zaintzen, etxeko lanak egiten edo beste edozertan jarduteko prest.
☎ 651 544 858

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. ☎ 603 743 240
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia.
☎ 689 003 537
- Emakumea lan bila. Esperientzia handia garbiketa lanetan eta adinekoak zaintzen.
☎ 631 498 697
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko.
☎ 602 846 244
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile lanetarako eta adinekoak zaintzeko.
☎ 636 882 838
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko.
☎ 628 740 765
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. Orduka edo interna. Esperientzia.
☎ 632 395 829
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko.
☎ 617 571 210
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. Ume autistekin esperientzia.
☎ 691 073 462
- Gizonezkoa eskaintzen da lanerako. Ordu-tegi malgua. Esperientziaduna.
☎ 650 091 685
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
☎ 676 602 481
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko.
☎ 602 691 378
- Mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako.
☎ 632 970 524

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna.
☎ 602 820 429
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna.
☎ 631 705 406
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko.
☎ 620 258 708
- Emakumea adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Agiriak legez ditut.
☎ 602 186 462

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Aukera paregabea! Garajea salgai Urazandin, Kalamua kalean. 24m², eta bost metroko altuera. Irekia da, baina itxteko aukera dauka.
☎ 607 349 070

PARTIKULARRAK

- Batxilergoa: Bigarren mailarako klase partikularrak hartuko genituzke, bereziki, ingelesa eta gaztelania.
☎ 628 413 290

OSPAKIZUNAK

- 1944an jaiotako kinto bazkaria azaroaren 22an, Sigman. Parrokia aurrean aterako dute argazkia 13:30ean. 50 euro sartu, Laboral Kutxako kontu honetan: 3035 0007 25 00711299009. Azken eguna, azaroak 18.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Bikote bat gara eta etxebizitza bion izenean daukagu eskrituratuta. Bere garaian hipoteka mailegua eskatu genuen biok. Orain, baina, hipoteka eta eskritura biotako baten izenean jarri nahi dugu. Mailegua eskatu genuen banketxean galdetu dugu eta esan digute onena biotako batek bere zatia besteari saltzea dela eta gaurko hipoteka-mailegua ezeztatu eta berria eskatzea.

Aukera ezberdinak dituzue, eta aukera horietako bakar batean ere ez da beharrezkoa gaur daukazuen hipoteka mailegu hori ezeztatzea eta berria sortzea. Hori egiteak gastu bat suposatzen du, ezinbestekoa ez den gastu bat.

Ezkondata ez baldin bazaudete eta etxea irabazpidean hartutakoa ez bada, aukera duzue biotako bati dagokizuen zatia saltzeko edo ondasun-erkidego hori desegitea. Erosteke dirurik ez badu, baina, beste horrek, bere zatia donatuko baliomoduan egin ahal izango luke besteak, baina operazio hori garestiago irtengo litzaioke. Dena den, edozelan eginda ere, hipoteka mailegua ezeztatzea ez da beharrezkoa.

Hipoteka mailegua ordura arteko baldintzetan geldituko litzateke eta ez da beharrezkoa hipoteka aldatzea. Zordunen kopurua gutxitzen da, bakar-bakarrik. Hori da aldatu beharko litzatekeen kontu bakarra

AHOLKUA: Eta banketxeak berehala onetsi behar du operazio hori.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Ibon**, gaur 3 urte bete dituzulako. Patxo handi bat aita-txo, amatxo eta Laidaren partez.




• Laster izango da zure eguna. Zorionak, etxekoen partez.



• Zorionak, **Unai**! 2 urtetxo! Patxo piloa, etxekoen partez.



• Zorionak, **Unax**! Muxu handi bat etxeko guztion partez, zure hirugarren urtebetetzean.



• Zorionak, **Luka**! Bihar urte bat egingo duzulako. Seleneren eta famili osoaren partez, muxu handi bat.




• Zorionak, **Aitzol**, urtetxo bat bete duzulako. Muxu bat maite zaituztenen eta bereziki arreba Pauleren partez. Oso ondo ospatu!

ESKERTZA



MARIA ELOISA
LOPEZ DE ABETXUKO
MADARIETA

*Isiltasunean izan dira
zure lana eta bizitza,
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.*



2014ko azaroak 8an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

ESKERTZA

ANTONIO IRIONDO ULACIA

"Kapain"



*Esan beharrik ere ez dago
nahigabetuta gaudela,
ikusiz nola lagun jator bat
betirako joan dela.
Sinets dezagun fedean, berak
sinesten zuen bezala,
egunen batean zeru argian
denok bildu gaitezela.*

*Saiatu zen familia ta
herriaren onerako,
Trinitate zen bere ametsa
ta beti prest lanerako.
Beste lantxo bat ere eman nahi
diogu azkenerako:
tarte txiki bat egin gureztat
joaten garenerako.*



2014ko azaroaren 4an hil zen,
73 urte zituela.

Trinitateko batzordea

14 barixakua

Antzerkia

20:30 'De cuerpo presente'
Glu Glu produkzioak taldeak taularatuko du. Herriko Antzokian.

Merkataritza

18:00 'Friday market'
Txankakuak antolatuta, elkarteko dendetan.

15 zapatua

Informazio mahaiak

10:30 'Banaketa edo dibortzio prozesuan dauden gurasoen erantzukidetasuna'

Agipase elkarteak eta Ongizate Sailak antolatuta, Lekuederren. Informazio mahaiak, umeentzako jolasak, puzgarriak eta pailazoak egongo dira.

Kirola

11:00 Karakateko igoera
Morkaikok antolatuta, Kalegoen plazatik Karakatera igoera.

16 domeka

Antzerkia

16:30 'Hiru Txerri txoak'
Glu-Glu taldeak taularatuko du Herriko Antzokian.

Magia-saioa

17:30 Niala magoa
Niala magoaren saioa Mendaron, Aitz Beltz tabernan. Haur nahiz helduentzako ikuskizuna

19 eguztena

Musika

19:00 'Musikalean'
Musika Eskolak antolatuta, txarangaren kalejira.

21 barixakua


Santa Zuzilia

8:30 Ikastolako umeen kalejira
Kalegoen plazatik Ikastolara.
18:30 Trikitilariekin kalejira
19:30 Kontzertua eta diploma banaketa
Musika Eskolak antolatuta, auditorioan.

ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

<p>«Lasa y Zabala» 15, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS) 16, domeka: 19:00 17, astelehena: 21:30</p>	<p>«Un toque de violencia» Ongarri zinekluba 20, eguztena: 21:30</p>
--	--

Azaroaren 20an umeen eskubideen eguna ospatuko dugu. Etor zaitez dituzun eskubideak ezagutzera!



BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK


09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
14 Fernandez 15 Yudego 16 Yudego 17 Zabaleta 18 Barrenetxea 19 Ibañez 20 Garitaonandia 21 Etxebarria	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384



Azaroaren 22an Zarautzera irteera. Hango gazteak ezagutzeko aukera izango dugu. Izenematea azaroaren 19ra arte





INGLÉS EN CAMBRIDGE: ¿PREPARATE PARA PRESENTARTE A UN EXAMEN?

INGLÉS EN LA UNIÓN: ¿NECESITAS AYUDA PARA PREPARARTE PARA EL EXAMEN?

CONTACTA CON NOSOTROS

San Ignacio 4, Eibar 943 74 02 36 info@skensington.es



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tailerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Urruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
tienda@pagoagasa.com

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana Iturgintza eta Instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Gremioen GIDA

Nola eragin haur eta nerabeek euskaraz egin dezaten

JARDUNALDIA



2014ko azaroak 28, ostirala
ELGOIBAR • IMHko Areto Nagusia

Izen-ematea: azaroaren 3tik 17ra
www.elgoibarkoizarra.com

EGITARAUA

- 08:45 - 09:00 Akreditazioa eta dokumentazioa
- 09:00 - 09:10 Ongi-etorria
- 09:15 - 09:25 Jardunaldiaren aurkezpena
- 09:30 - 09:55 **Gure haur eta nerabeek euskaldunak al dira?** Kike Amonarriz
- 10:00 - 10:10 **Zer uste dute gure haur eta nerabeek?** Ikusentzunezkoa
- 10:15 - 10:40 **Erabileraren ontzia bete.** Iñaki Eizmendi
- 10:45 - 11:10 ATSEDENA
- 11:15 - 11:40 **Kirola oinarritik euskaraz.** Koikili Lertxundi
- 11:45 - 12:10 **Euskal kulturatik bizipoza saretzera.** Jose Mari Agirretxe "Porrotx"
- 12:15 - 12:40 **Etzetik plazara.** Lorea Agirre
- 12:45 - 13:10 **Zer eta nola egin Udaletik?** Iñaki Arruti
- 13:15 - 13:40 **GUREAN BAI proiektuaren aurkezpena.** Naiara Martin
- 13:45 - 14:00 Sinadura ekitaldia eta agurra